

TXANTXANGORRIA ETA IPURTARGIA

Gau iluna zen eta ilargirik ere ez zen ageri. Oso beltz zegoen dena. Txantxangorritxo kantari bat, gau beltzaren erdian zebilen iluntasunean, eta arantza sartu zitzaion ezkerreko hankatxoan. Arantza harek min izugarria ematen zion, eta txantxangorria negarrez ari zen.



Zorionez, han inguruan zebilen ipurtargi batek entzun zuen txori gaixoaren negarra, eta honela galdetu zion belar artetik:

- Zer gertatzen zaizu, hain estu eta larri?
- Oi, ene ipurtargi, arantza josi zait ezkerreko hankatxoan, eta iluntasun honetan ezin dut atera.
- Itxoin ezazu apurtxo batean-. Eta bere argiaz eginez, honela jarraitu zuen:
- Ezer ikusten ahal duzu?
- Bai, mila esker- txoriak.



Eta ipurtargiak egin zion argitasunari esker, txantxangorriak hainbeste min egiten zion arantza atera ahal izan zuen haragitik. Bitartean, zeru alde guztia, lehen baino ilunagoa egin zen. Urrutira, trumoiaren hotsa entzuten zen, eta tximist-argiak dir-dir egiten zuen gau ilun beltz haretan.

- Beldur naiz- esan zion ipurtargiak txantxangorriari.
- Atoz nirekin-txantxangorriak-. Berehala egingo dut etxetxo bat.

Txantxangorriak, bere mokoaz lan eginez; hosto batzuk berehala bildu zituen, ipurtargiak argi egiten zion bitartean. Euri zaparrada hasi zenean, biek, hosto azpian sartu eta, hantxe izan zuten aterpea, ekaitz gogor hura gelditu zen artean.

TXANTXANGORRIA ETA IPURTARGIA

1.- Gau ilun batean, zer gertatu zitzaion txantxangorriari?

A.- Ezkerreko hankatxoan arantza bat sartu zitzaion.

B.- Ezin zuen bere etxea aurkitu.

C.- hain Ilin zegoenez, beldurtu egin zen.



2.- Ipurtargiak nola jakin zuen txantxangorria handik zebilela?

A.- Berak egindako argiaz ikusi zuelako.

B.- Txantxangorriak deitu ziolako.

C.- Bere negarrak entzun zituelako.

3.- Nola lagundu zion ipurtargiak txantxangorriari?

A.- Arantza kenduaz.

B.- Bere argiaz argi eginez.

C.- Ez zion lagundu, hori txantxangorriaren arazoa baitzen.

4.- Zer esan zion ipurtargiak txantxangorriari?

A.- Bere etxea non zegoen ahaztu egin zitzaiola.

B.- Beldur zela.

C.- Berak mesede bat egin Siones, orain laguntza eman behar ziola.

5.- Zer egin zuen txantxangorriak?

A.- Ipurtargiari eskerrak eman zizkion.

B.- Hegoak zabaldu eta handik aldegin zuen.

C.- Hostoz egindako etxetxo bat.

6.- Noiz arte egon ziren elkarrekin txantxangorria eta ipurtargia?

- A.- Ekaitza gelditu zen arte.
- B.- Hil arte, elkarrekin ezkondu baitziren.
- C.- Elkarrekin inoiz ez ziren Egon, bakoitza bere etxera joan baitzen.